







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %2,7 egin zuen gora urrian, 2016. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %2,3 igo zen, etxekoan %5 eta hirugarren sektorean edo zerbitzuetan, berriz, %1,7 jaitsi zen. Urrira arte metatutako kontsumoak %1,9 egin zuen gora, 2016ko epealdi berarekin alderatuta; etxeko sektorean %2 jaitsi zen, zerbitzu arloan %0,8 eta industrian, ordea, %3,7 egin zuen gora. Urte honetan, industrian gora egin duten sektoreak, besteak beste, hauek izan dira: zementua (+%8,4), kimikoa (+%6,9), beiragintza (+%6,2) eta siderurgia zein galdagintza (+%5).

Gas naturala







Urrian, gas naturalaren guztizko kontsumoak %3,2 egin zuen gora, 2016ko urrian izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %15 jaitsi zen eta gainerako sektoreena, aldiz, %9 igo zen. Urrira arte metatutako kontsumoak %6,9 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (+%27,7 CCTT-n eta +%3,6 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Irailean, garraioan erregaien kontsumoak %6,8 egin zuen gora, 2016. urteko hil berean izandakoarekin alderatuta. Irailera arte metatutako kontsumoa %5,1 igo zen, 2016koarekin erkatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %4 egin zuen gora eta A gasolioarenak %5,2.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera








EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Urrian, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 98,7 milioi kupel izan zen (2016ko urrian izandakoaren aldean, %1,2 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunak %1,6 egin zuen gora kontsumoak, 14,6 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %0,1 igo zen, eta 12,6 Mbpd kontsumituz heldu zen eta AEBetan %1,8 igo zen, eta 20 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, oro har, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,6 igo da, Txinan %3,5, AEBetan %1,2 eta Europar Batasunean %1,9.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %8,2 egin zuen gora urrian, 2016ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Urrira arte metatutako kontsumoak %7,6 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen urrian, %1,9, 2016ko urrian izandakoaren aldean. Urrira arte metatutako kontsumoa ia zko epealdi berean izandakoaren bertsua izan da. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %0,4 egin zuen gora irailan, 2016ko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinaren kontsumoa %1,3 igo zen eta gasolioena %0,4 irailera bitartean metatutako kontsumoak %2,2 egin zuen gora, 2016. urteko epealdi beraren aldean, (%2 igo zen gasolinena eta %2,3 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %9,9 egin zuen gora irailan, eta irailera arte izandako kontsumo metatua %9 igo zen, 2016ko epealdi berarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 57,6\$ (49 €) izan zen urrian. Urtebetean prezioak %15,9 egin zuen gora (%8,7 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 56,8€/MWh izan zen urrian; duela urtebete zegoenaren aldean, %7,5 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 16,5 €/MWh izan zen irailan, eta %15,3 igo zen, 2016ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Urrian, EGIX-en prezioa 18,4 €/MWh izan zen (2016ko urrian izandakoarekin alderatuta, %3,2 igo zen). Spot merkatuetan, urrian, Henry Hub-en prezioa 9,8 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 17,7 €/MWh, (2016ko hil horretan izandakoaren aldean, %3,4 eta %0,4 egin zuten behera, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, irailan, gasolioaren prezioa 1,09 €/l izan zen (urtebetean %7,4 igo da), eta gasolinarena 1,2 €/l (urtebetean %5,8 egin du gora).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 7,3 €/t izan zen urrian, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %29 igo da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.